TOKIKOM Berezia
txintxarri
1035. zenbakia 2012-07-03 Lasarte-Oria txintxarri.info

## San Pedroak 2012




# Ekaitzaren ondorengo barealdia...





jalgi

KAFE-ANTZOKIA





Herriko festetan ondo pasa izana espero dugu !

KONTZERTUAK
ANTZERKIAK
GIRO PAREGABEA PINTXO GOXOEKIN

GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024



Nagusia 36, behea 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 04 46

Nagusia 50, behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 36 11





Geltoki Kalea 15 behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376585

Jai zoriontsuak pasa izana espero dugu !

HARATEGIA
BALERDI
URDAITEGIA

# Herritarrek plaza hartu zuten



Udaletxe berriko balkoitik, Danok Kide eta Jalgune elkarteko kidek eman zioten hasiera ofiziala jaiei arratsaldeko txupin jaurtiketarekin. Okendo plaza jendez beteta zen. Bertan jarri zen Sorgin jaien txosna ere.



Sorgin Dantza Okendon amaitu zen arratsaldeko txupina bota aurretik.

Giro onarekin burutu dira aurtengo sanpedroak. Asteazkenean suabe suabe sorgin jaiekin hasi ondoren, ostegunean jaurti ziren txupin ofizialak eta asteburuan jendez gainezka izan dira Lasarte-Oria erdiguneko plaza eta kaleak. Kalera atera dira herritarrak eta Udalak zein Sorgin Jaiek antolatutako ekitaldiez gozatu ahal izan dute. Batez ere Okendo plazak hartu du protagonismoa, bertan hasi eta amaitu dira jaiak, bertan jarri da Sorgin Jaien txosna eta bertan egin dira kontzerturik jarraituenak, herriko taldeena asteazkenean, Zopilotes Txirriaos eta Joxpa taldeena ostegunean, Itzarturekin zikiro afariaren ondorengo erromeria ostiralean, eta "We are Standard" eta "Bongo Botrako" talde ezagunen emanaldia larunbatean. Gainera bi talde hauen tartean, Funebre taldearen su, fantasia eta beldurrezko ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**

**Lasarte-Oriako Udala**
Euskara Batzordea

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

**Argitaratzailea:** Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366 858, 943 371 448, G-20407557 **Legezko gordailua:** SS513/93 ISSN: 1134-0053 **Inprimategia** Zeroa Multimedia, S.A.
**Aleak zenbakiko:** 7.800 **Erredakzioa:** Nerea Eizagirre, Jon Altuna Iza, Maider Azurmendi, Jon Altuna Egitegi txintxarri@txintxarri.info txintxarri@ttakun.com **Publizitatea:** Arantza Artola, publizitatea@ttakun.com
**Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. **Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.**






# Goiztiarrenak Sorgin Jaiak

Sorgin Jaiak izan ziren txupina botatzen lehenak eta herria jai giroan murgildu zuten asteazkenean. Kuadrilen jaitsiera egin zuten lehenengo eta ondoren antzerki eta bertsoak lagun txupina bota zuten. Gauean herriko taldeek eskaini zituzten kontzertu jendetsuak.



**Bertsoak eta antzerkia festari hasiera emateko.-** Txupinazoa bota aurretik gazteek antzerkia egin zuten Okendon eta Unai Muñoa eta Ane Labaka herriko bertsolariek kantatu zuten. Unaik oholtza gainetik aurreko Udalaren papera hartu zuen eta Anek berriz, herriko gazteena. Umorea eta aldarrikapena uztartuz, ekitaldi jendetsu honekin hasiera eman zitzaien Sorgin Jaiei. Asko izan ziren antzerkian parte hartu zuten haurrek eta Okendo plazan bildu ziren herritarrekin kalejira alaia egin zuten gazteek txupina bota ondoren. Aurtengoan Okendo izan dute koka-leku Sorgin Jaiek lehenengo aldiz. Txosnak Ostatu Berri tabernari egin nahi izan zion omenaldia eta herritar askok begi onez ikusi zuten gazteen ekimena.




MADD MEIER
KARROZERIAK
San Pedro jai onak pasa izana espero dugu !
ORDEZKO IBILGAILUA
Bankada elektronikoa - Kabina labeduna
Informatizatutako kolorimetria
Certified First KIDEA
Aseguru konpainia guztiekin baimendutako zerbitzua
Oria etorbidea 10 - Brunet pol., 20-21
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 360 617 - Faxa: 943 366 038
maddmsl@iservicesmail.com

ADURIZ DE LASARTE S.A
Oso ondo pasa izana espero dugu!
Odolkia- Solomo ontzutua
Tripakiak- Saltxitxak
Solomoa baratxuritan
Txistorra
Basurde burua
Etxeko txorizoa
Baserri patea
BERTAKO FABRIKAZIOA
Loidi Barren kalea 3 • Tel: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

Gabirondo
ALTZARIAK
Ondo pasa izana espero dugu !
Jaizkibel plaza 2-14 • Tel.: 943 364007
LASARTE-ORIA







**Herriko taldeen kontzertuak.-** Gauean herriko musika taldeak izan ziren Okendoko oholtza gainean. The Garax, Hilotz, Trikihots eta DJ Zebok jarri zuten musika jaietako lehen gau luzean. Estilo guztietako musikak izan ziren entzungai, The Garax-ek La Polla Records, Rip, Des-Kontrol eta antzeko taldeen bertsioak jo zituen, Hilotzek metal duin eta gogorra egin zuen eta Trikihotsek erromeria egin zuen.



Hilotz taldeak kontzertua eskaini zuen, aurten Lasarte-Oriako maketa lehiaketan sarituak izan dira.





**Parranda lehen gau luzea.-** DJ Zebo izan zen azkena Okendoko oholtzara igotzen. Bere musika pintxatu zuen eta egunsentira artean jarri zuen honek giroa. Jaietako lehen gau luzea izan zen Sorgin Jaiena askorentzat eta amaitu bezain laster, osteguneko lehen orduetan eman zitzaion hasiera udalak antolatutako egitarau ofizialari. Gazteen lekukoa hartu zuten kaleetan txikienek.













# Ekainaren 28a

Lehen aldiz Haurren txupinazoa egin du Udalak. Ostegun eguerdian txikienek eman zieten hasiera herriko jaiei. Udaletxe zaharretik Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek, Pupu eta Lorerekin batera, txupina bota zuten. Aurten omenduak izan dira herriko pailazoak, Danok Kide eta Jalguneko lagunekin batera. Hauek ere bertan izan ziren udal ordezkariekin batera.





**Jendetza festei hasiera emateko.-** Udaletxe Zaharraren inguruan jendetza bildu zen. Herritarrek festa gogoa zuten eta adin guztietako jendea ikusi ahal izan zen eguerdiko lehen txupin honetan. Pailazoen Maite zaitut abestia hastearekin batera, jendea dantzan eta abesten hasi zen. Giro ezin hobean jaurti zuten txupina Sasoeta eskolako Ariadna Guijar eta Yeray Nietok pailazoen laguntzarekin.



Kuadrilen arteko futbol, saski eta boleibol finalak kiroldegian egin ziren

VENTANAS SAN MIGUEL
Zuregatik oso gertu!
Oso ondo pasa izana espero dugu !
Zirkuitu ibilbidea 10 (gasolindegiaren atzean)
Tel.:943 362457 • LASARTE-ORIA

DANI karrozeria
Jai zoriontsuak pasa izana espero dugu !
Trebeak gara kolpe handiak konpontzen
• Kabina labeduna
• Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
• Tapizatuen garbiketa
Zirkuitu ibilbidea 12
20160 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 371440
Mobila: 608 391885
carroceriasdani@lditel.com









**Haurrentzako hamaika ekintza.-** Jaietan haurrentzat ere asko izan dira ekintzak. Esate baterako, nahiz eta eguraldiak ez lagundu, makarronada goxoa bazkaldu eta Busti Blai ekintzarekin haurrek ederki gozatu zuten. Ondoren eskulan ezberdinak egiteko aukera izan zuten Okendo plazan.





**Oriako Sorgin Dantza.-** 272 herritar atera dira aurtengo Sorgin Dantzan. Ohitura hau guztiz errotuta dago herritarren artean eta urtetik urtera geroz eta jendetsuagoa dela azpimarratu behar da. Oriatik abiatu ziren dantzariak aurten, hori bai, ohi baino lehenago Okendora txupinazoa baino lehen iristeko. Euria agertu bazen ere, dantzariek ibilbide guztian ehunka lasarteoriatarren laguntza izan zuten.


- Beroaren isolazioa txapan, aluminioan...
- Sabaiko eta makinen geletako intsonorizazioa
- Airearen kanalizazioa txapan eta climaverrean
- PLADURREZKO tabikeak
- Tabernetako intsonorizazioa

Jai zoriontsuak giro ederrean pasa izana espero dugu!

AISNORSA

PLADUR ISOVER

Oria etorbidea 8-10, 41 pabiloia
Tel.: 943 366279 • Faxa: 943 372717
LASARTE-ORIA





Jalgunekoek txupina bota aurretik euren “Pausoka pausoka” kanta eta dantza erakutsi zieten Okendon bildutakoei.



Jalgune eta Danok Kidekoek bota zuten azken txupina Udaletxe berriko balkoitik, alkateak diskurtsoa egin zuen ere.



Sorgin Dantzak Kale Nagusian egin zuen dantza egiteko bigarren geldialdia.



Sorgin Dantzakoek kalejira egin zuten goraino zegoen plazan.



Hirugarren txupina jendetsua izan zen Jalgune eta Danok Kidekoen eskutik.







Apar festa burutu zen txupinaren ostean Okendon. Villafranca del Penedes-ko Falcons taldeak erakustaldia egin zuen.





**Danborrada, ohiturari eutsiz.-** Eibarko gastadoreen laguntza izan zuen herriko helduen danborradak aurtengoan. Musikan berriz, Oria txaranga izan zuten lagun danbor eta kupela joleek. Lasarte-Oriako ereserkiarekin hasi zuten ibilbidea elkarrekin Goiegin bapo afaldu ondoren.







Gauean kontzertuak burutu ziren herriko hainbat lekutan, Okendon Zapilotes Txirriaos taldea aritu zen, Trumoin Hotzikara eta Andatza plazan Kubako doinuak nagusi izan ziren Trovahavana-rekin.

Jalguneko lagunok jai onak igaro izana espero dugu!

Jalgune Elkartea



Bekokale bidea 1 2. solairua • LASARTE-ORIA

# Ekainaren 29a San Pedro eguna

**Hamaika ekintza izan ziren jaietako egun handian, San Pedro egunean. Meza, pilota partidak, Oriako jaitsiera, sagardo dastaketa, sardin jana, zikiroa... Eta Danok Kide, Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta Jalguneri omenaldia egin zitzaien Manuel Lekuona kultur etxean. Herritarrek patroiaren eguna ederki ospatu zuten eta Okendo plaza, kaleak, ibaia eta xexen plaza bete zuten.**





San Pedro egunean Amalur eskolako txistulariek herria esnatu zuten dianarekin.



Herritarrek ez zuten hutsik egin eta San Pedro eliza bete zen.




Intza elkarteko jubenilek eta seniorrek erakustaldi ederra eskaini zuten Loidi-Barrengo pilotalekuan.




Pasaia txaranga egon zen San Pedro eguna girotzen.

CASA EXTREMADURA

Jai alaiak pasa izana espero dugu !

Adarra 4 • Tel.: 943 372375
20160 Lasarte-Oria

LASARTE - ORIA
VIRGEN DE GUADALUPE





Amaieran omenduek talde argazkia atera zuten udal ordezkari eta hainbat lagunekin.




Ainhoa Mercero sopranoa ere izan zen omenaldian.







Danok Kide gurasoen elkarteko kideek, Takolo, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek eta Jalguneko kideek Pablo Barrio alkateak emandako oroigarria jaso zuten.







Hainbat lagun animatu ziren omenaldian parte hartzera.

**Omenaldi koloretsua.-** Lasarteoriatarrek Manuel Lekuona kultur etxea bete zuten San Pedro egunean Danok Kide, Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta Jalguneri egindako omenaldia ikusteko. Jalgunek "Pausoka, pausoka" abestia dantzatu zuen eta pailazoek Takolorekin batera saiotxoa egin zuten. Omenduez gain, herriko hainbat taldeek parte hartu zuten, Zero Sette akordeoi orkestrak "Maite zaitut" abestia jo zuen, Kukuka eskolako dantza garaikideko taldeak dantza egin zuten, Bertso eskolako kideen hitzak entzun ziren, Ainhoa Mercero sopranoak bere ahotsarekin bete zuen aretoa eta Erketzeko lagunak ere bertan izan ziren.














Igeldoko txakur hezitzaileek asistentziako erakustaldia egin zuten Okendo plazan. Honetan txakurrek pertsona elbarrituei nola lagundu ahal dieten ikusi zuten herritarrek. J. ZATARAIN




Oriako Jaitsieran tamaina eta materiala ezberdinetako ontziak ikusi ahal ziren. Guztiek amaitu zuten jaitsiera, baina batek baino gehiagok txalupa utzi eta oinez egin behar izan zuen bidea.






Ederki gozatu zuten Oriako jaitsieran parte hartu zuten guztiek. Batzuk maskarekin eta pelukekin egin zuten ibilbidea eta umore ona izan zen nagusi amaitzean.


BIYAK BAT
Jai alaiak pasa izana espero dugu!
Kale Nagusia 40 • Tel.: 943 363964 • LASARTE-ORIA

InmoGes
Inmobiliaria
Herriko jai onak pasa izana espero dugu !


Kale Nagusia 12-3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376662

LIBRERIA MAITE

San Pedro jai zoriontsuak pasa izana espero dugu !
Geltoki 12 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 372791



Haurrentzako jokoak, puzgarriak eta hamaika jolas izan ziren Andatza plazan.



Etxeko txikiek txalupa berezi hauetan ibili ahal izan ziren San Pedro egunean.



Hainbat gazte hurbildu ziren Atsobakarreko zelaian zegoen xexen plazara.



Ederki gozatu zuten xexenen aurrean korrika, lurrean bukatu zuten batzuk.





Sorgin Jaietako II. eskalada txapelketa egin zen kiroldegiko rokodromoan. Herriko eta inguruko jendea animatu zen parte hartzera. Ikuskizun handia eskaini zuten eskalatzaile trebeek.




Urtero legez, Aterpea merkatari elkarteak sardina jana antolatu zuen Oekndo plazan.


Sagardo dastaketa ere egon zen Ttakun kultur elkartearen eskutik.


Amalur eskolako talderen eskutik, erromeria izan zen eta muxikoak dantzatu ziren.


Hainbat zirko ikuskizun ere ikusi ahal izan zituzten herritarrek a Elizatze plazan.



San Pedro jaietako bertso saioa ere izan zen. Unai Muñoa izan zen gai jartzaile eta Lasarte-Oriako bertso eskolako kideez gain, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña izan ziren.

San Pedro jai zoriontsuak pasa izana espero dugu!
M ZUBI
LASARTE-ORIA
Jai zoriontsuak pasa izana espero dugu!

Geltoki kalea 21• Tel.: 943 362467 Faxa: 943 372794 • Lasarte-Oria
E-maila: muebleszubi@hotmail.com





Eguerdian jarri zuten zikiroa erretzen Antonio Mercero plazan eta eguraldia lagun, gauen 250 herritarrek entsalada eta haragi goxoa dastatu zuten Okendo plazan.



Gaztetxoek ederki gozatu zuten Itzartu taldearen erromerian,



Estilo desberdinetako abestiak entzun ahal izan ziren gaueko karaokean, hala nola, Coti edo Lagy Gagaren doinuak.







Jalgi Kafe-Antzokian Dj Nakenen saioa izan zen. Herritar ugari bildu zen Isla plazan Rubi berriak orkestra entzutera. Bitartean, herriko kaleetan Masaranduba txarantukadaz gozatu ahal izan zen.



# Ekainaren 30a

Kalea bihurtu zen festaren gune larunbatean: Amalur eta Oria txarangak ibili ziren kalez kale, hauek erraldoi eta buruhaundiekin, Xumela abesbatza ere bai kantu jiran goizean, Tolosako dultzaineroak eta Dinbi Banda herriko batukada arratsaldean eta bestalde hainbat ikuskizun eta joku antolatu ziren kalean: haurrentzako golf zelaia, beisbolean aritzeko kaiola, Semway zirkuitua, puzgarriak eta beste Isla plazan, emakumeen herri kirolen erakustaldia Okendo plazan, Gaztetxoentzako joko olinpikoak, Looping Bike, giza futbolina, saskibaloia, ski eta arrauna besteak beste, kale nagusian. Kaleko antzerkia egin zuen Trapu Zaharrak taldeak iluntzean eta beldurra, fantasia eta sua ekarri zuen Funebres taldeak gauean. Andatza plazako berbenan, Cristina Sierra herritarrak abestu zuen eta Okendoko kontzertua bikaina izan zen, We are Standard eta Bongo Botrako taldeekin.






Besteak beste golfean aritzeko aukera izan zuten haurrek Isla plazan



Xumela abesbatzakoek kantu jira egin zuten eguerdian.





Emakumeen Herri Kirol erakustaldian norgehiagoka politak ikusi ziren. Berdintasuna aldarrikatuz, besteak beste Sokatiran, Trontzan eta Txingaran aritu ziren emakumezko kirolariak.

MEKANIKAKO TAILERRA

WABCO
DIMETAL S.A.
IVECO
ZERBITZU OFIZIALA
LOMBARDINI

SAN JOSE-OLAIZ

San Pedro jai zoriontsuak pasa izana espero dugu !

• Kamioien txasia konpontzeko oinarria.
• Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.
• Industriako ibilgailuen konponketa.

Ordutegia: 8:30 - 20:30

Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160LASARTE-ORIA •Tel.: 943 361857 •Faxa: 943 366508



San Pedroetako Beteranoen II. txapelketan Goio Solano eta Mikel Arroio nagusitu ziren.



Udaletxe aurrean paella erraldoi bat egin eta banatu zuten.

## Herriko eskuzko pilota txapelketako finalak.-

Herriko beteranoen arteko II txapelketako finala jokatu zen larunbat goizean Loidi Barrengo frontoian eta Goio Solano-Mikel Arroio bikotea nagusitu zen Mieltxo Ariztegi-Xabi Etxezarretaren aurka. Hori izan zen azken partidua, baina aurretik, haurren XX. txapelketako finalak ere jokatu ziren: Unai Sorrondegi eta Aimar Lizaso nagusitu ziren aurre-benjaminetan, Gorka Marcos eta Julen Alberdi alebinetan, eta Eneko Sarasola eta Aritz Sarobe infantiletan. Ondoren sariak eta opariak banatu ziren parte hartzaile guztien artean.







Finalen ondoren opariak banatu ziren parte hartzaile guztien artean.



Gazteen bertso bazkariaren ondoren olinpiar jokoak egin zituzten

Xaralphoto

NAN argazkiak momentuan 3,50 eurotan

Mikro-saioa: estudioko argazkia momentuan eta 5 eurogatik!

Zure neurrira egindako ezkontza saioak

Kale Nagusia, 44 Lasarte-Oria Tlf: 943248755

www.xaralphoto.com





Txarangarekin batera egin zuten kalejira erraldoi eta buruhaundiek larunbatean goiz eta arratsaldez.



Buruhaundiek lan asko egin dute 2012ko sanpedroetan.



### Dinbi Banda batukadarekin dantzan Sanpedrotan.-

Maiatzaren 26an, Kukukaren X. urteurreneko festan estreinatu eta gero, sanpedrotan kaleak hartu dituzte Dinbi Banda, Lasarte-Oriako batukada taldekoek. Asteazkenean, Sorgin jaien hasiera egunean jo zuten lehenengoz arratsaldean hasita eta larunbat arratsaldean berriro heldu zieten euren perkusio tresnei herriko kaleak animatzeko. Bai, asteazkenean, bai larunbatean jarraitzaile ugari izan zituen batukada taldeak bere ibilbidean, gustura egon zirenak euren doinuak entzuten eta dantzatzen.



Tolosako dultzaineroak herrira bisita egin zuten larunbat arratsaldean.



Haur eta gaztetxoek oso ondo pasa zuten trizikloetan.











Oria txarangak alaitu zituen kaleak larunbat eguerdian.





Ametsetan Bizi antzerki lana eskaini zuen Trapu Zaharra taldeak.



Looping-bike ikusgarria kale nagusian.



Xereta lan ikusgarria eskaini zuen kultur etxean larunbat iluntzean Gero Axular Dantza Taldeak.











Blaka taldeak kontzertua eman zuen larunbat gauean Trumoi taberna ondoko garbitegian.



Ibai Berriak orkestrak girotu zuen Andatzako dantzaldia. Kristina Sierra da taldeko abeslaria.



Bongo Botrako taldeak dantzan jarri zuen Okendo plaza.



**Ikuskizun bikaina gauez Okendon.-**

Ikusgarria izan zen larunbat gauean Okendon eskainitako musika kontzertu eta Funebres taldearen ikuskizuna. Batetik maila handiko bi rock taldek jo zuten plazan, Getxoko "We are Standard" talde ezagunak eta Kataluniako Bongo Botrako taldeak. Hauek "Todos los días sale el sol, chipirón" abestiaren egileak dira eta dantzan jarri zuten Okendo plaza. Bestalde, bi taldeen arteko atsedenaldian, Funebres taldekoek su, fantasia eta beldurrezko ikuskizuna eskaini zuten beste mundutik etorritako pertsonaiek, euren su, bengala, petardo eta besterekin.



We are Standar taldekoek hiru diska plazatatu dituzte 2005etik.

ANAIAK
JANTZI-DENDA
Oso ondo pasa izana espero dugu !
ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA !
Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386


# Uztailak 1

Igandea jaietako azken eguna izanagatik ez zen lasaiagoa izan. Sorgin Jaiek antolatutako bakailao txapelketa, haurren danborradak eta bolo zein toka txapelketak jokatu ziren besteak beste. Gauean festari amaiera emateko, Gose taldearen kontzertu jendetsua, su artifizial ikusgarriak eta klasiko bat den zezen suzkoa iksuteko aukera izan zen.



Emakume bikote bakarra aurkeztu zen aurtengo bakailao txapelketan.




Alex Ramos eta Gerardo Zarzuelo izan ziren Sorgin Jaietako bakailao txapelketan garaile.



**Haur danborradaren hotsak nagusi.-** Igande goizean jendetza bildu zuen ohi bezala haur danborradak. Manuel Lekuonan familia argazkia egin ostean, herriko kaleetan barrena murgildu ziren danborrak eta kupelak gogor astinduz. Honetan parte hartu nahi izan zuten ere Jalguneko hainbat kidek.









Haur danborradak familia argazkia egin zuen Manuel Lekuona kultur etxean eta bertan izan zen Boris Nogales Kultura batzorde burua.



Sorgin Jaietako Mus txapelketan Jon Peio Artetxe eta bere aita izan ziren garaile.



Uharteko zanpantzarrek herriko kaleak girotu zituzten.



Monsters show ikuskizuna eskaini zuen Panta Rhei antzerki taldeak Isla plazan.

**Toka eta bolo txapelketak.-** Toka txapelketan irabazlea izan zen Prudencio Olano, atzetik Francisco Rodriguez eta Juan Luis Yeregui geratu zirelarik. Emakumeetan berriz, Socorro Sarasolak irabazi zuen eta Caridad Pinilla eta Esperanza Garciak bigarren eta hirugarren postuak egin zituzten. Boloetan Gipuzkoako eta herriko txapelketak burutu ziren. Lehenengoan Miguel Arrozpide izan zen garaile eta bigarrenean, herrikoan, Inaxio Otaegi. Emakumeen taldean Charo Galanek irabazi zuen. Txapelketaz gain, toka erakustaldia egin zuten Euskadiko tokalari hoberenek. Haurrek ere bolo jokoan lehen urratsak eman ahal izan zituzten eta asko izan ziren parte hartzera animatu zirenak. Aipagarria da ere Pablo Barrio alkateak toka txapelketan parte hartu zuela antolatzaileek gonbidatuta. Bestalde, antzerki ikuskizunak, musika, zanpantzarrak izan ziren festen azken egunean. Gose taldearen kontzertuak jende andana ekarri zuen Okendo plazara.


M. Berasategi
Kafeak
Jai zoriontsuak pasa izana espero dugu !
1961
Beti dago aukera kafe on bat hartzeko
Edozein ordutan
INFUSIOAK
- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE ZAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK
- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOA
- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA





Haurrak bolo jokoan eta tokan ibili ziren helduen azalpenak jarraituz.





Jose Antonio Montes Ostadarreko bolo eta toka ataleko arduraduna, toka irabazleak izan ziren Prudencio Olano eta Socorro Sarasolarekin. Alkatea tokan aritu zen duin.








Sorgin Jaietako haur danborrada arratsaldean aritu zen Okendo plazan.


Amalur eskolakoek kontzertua eskaini zuten Okendo plazan. Hauek entzutera jende asko gerturatu zen.



TamerlaÿN herriko metal taldearen kontzertua entzuteko aukera izan zen.


Sorgin Jaiakeko gazteek festei agur esateko Akelarrea berreskuratu zuten.







Gose taldearen kontzertuak ikusmina sortu zuen eta asko izan ziren Okendora gerturatutako herritarrak.


Amaia Zubiriak Andatza plazan eskaini zuen kantaldia ehunka lagunen aurrean.





Jaiei amaiera emateko ohi bezala tradizio bihurtu diren su artifizialak eta zezen suzkoa izan ziren. Aurten Astondoa pirotekniako suak izan ziren jaurtitakoak.
















# Giro ederra izan zen

2012ko sanpedroen egitarau oso irekia eta oparoa izan da eta haur, gazte zein helduek ondo pasa dute asteazkenetik igandera bost egunetan luzatutako festetan. Irudi hauetan ikus daiteke adin guztietako herritarrek parte hartu dutela.


Gaztetxoenek nikiak margotzeko ohiturari eutsi diote.


San Pedroetako mahai joko txapelketetako irabazleak Biyat Bat elkartearen kanpo aldean.


Sorgin dantzako buruko zapiak eta kapeluak janzteko laguntza behar izaten dute.


Adin guztietako herritarrak bildu ziren Sorgin jaietako txupina ikustera.



Koadrilen arteko futbol, saskibaloi eta boleibol txapelketako finalak jokatu ziren ostegunean Loidibarrengo kiroldegian.








Villafranca del Penedesko Falcons taldeak hainbat eratako gizadorreak egin zituen ostegun arratsaldean. A.RAMOS



Atsobakarren jartzen den zezen plazako hesia eta gradak jendez bete dira zezenen aurreko balentriak ikusteko.



Kataluniakoen Castells-a ikusi eta berea egin zuen bikote honek.



Ostegun iluntzean irudi politak ikusi ziren Okendon apar festaren ondorioz.

Iturgintza Urbasa
Oso ondo pasa izana espero dugu!
Iturgintza
Berogailuak
Energia berriztagarriak
Gasa
Txartel Kalea 17 4.B • Lasarte-Oria
Tel.: 647 821364 • infourbasa@gmail.com

INSAUSTI Taberna
OSO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU !
Geltoki kalea 6 • Tel.: 943 361151
LASARTE-ORIA

Difrenauto
Tel.: 943 37 01 49
Fax: 943 36 66 59
taller@difrenauto.com
www.difrenauto.com
Herriko jai zoriontsuak pasa izana espero dugu !
Oria Etorbidea 8 - 10 pab. 15
20160 LASARTE-ORIA (Gipuzkoa)
EUROMASTER

adats
ile-apaindegia
Ondo ibili izana espero dugu !
Geltoki kalea 3
Mobila: 600 523988
LASARTE-ORIA

GURE ETXEA TABERNA
Oso ondo pasa izana espero dugu !
Goizeko 6-retan irekitzen dugu
Gosariak, pintxoak,..
Nagusia 14 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 374244



Amalur-eko lagunek txarangarekin alaitu zituzten herriko kaleak. A. RAMOS



Aurten ere Okendoko garajean bazkari ederrak prestatu dituzte.



Barraketan haurrek eta ez hain gaztetxoek ederki gozatu dute.



Milaka opari eman dituzte Brigidatarren plazan eta Dorre plazan izan ziren joko postuetan.






## Zorion agurrak



**Udane**

Zorionak eta bost muxu handi etxeko printzesari. Amona, izeba eta osabaren partetik.



**Irati**

Zorionak marisorgin!! Zazpi muxu pottolo ama, Jesús eta familiaren partetik



**Maite eta Jesus**

Zorionak zuen urrezko ezteietan. Horrela jarrai dezazuela. Muxu asko familiaren partetik.

## Farmazia Goardiak

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

| | | |
|---|---|---|
| **Asteartea, 3** | Rodriguez, Nagusia 42 atzea | 943 361774 |
| **Asteazkena, 4** | Gil, Kale Nagusia 24 | 943 361529 |
| **Osteguna, 5** | Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 | 943 363549 |
| **Ostirala, 6** | Urbistondo, San Frantzisko 1 | 943 366567 |
| **Larunbata, 7** | Orue, Jaizkibel plaza 2 | 943 362652 |
| **Igandea, 8** | Orue, Jaizkibel plaza 2 | 943 362652 |
| **Astelehena, 9** | Orue, Jaizkibel plaza 2 | 943 362652 |

**GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero** Chucla, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

# Herritarren txokoa

### Galdutako txaketa beltza

Sorgin dantzako azken entseguaren ondoren, txaketa beltz bat aurkitu zen Landaberri BHIko patioan.

Ttakun kultur elkarteko bulegora hurbildu behar da jabea hau eskuratzeko.

### Udako ordutegia kiroldegian

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, uztailaren 1etik aurrera udako ordutegia izango dela indarrean.

Kiroldegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita egongo da.

Kirol Gunea, berriz, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:00etara irekiko ditu ateak, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita egongo da.

### Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

### Txakur arriskutsuak Zabaletan

Azken egunetan auzoan txakur batzuek eragindako gertaera tamalgarrien aurrean bere kezka eta haserrea azaldu nahi du Zabaleta Auzolan auzo elkarteak. Beste behin ere txakurjabearen axolagabekeriak kalte larriak eragin dizkio herritar bati eta beste txakur bati.

Onartezina iruditzen zaigun jokaera horren aurrean, arduraz jokatzeko, lotu gabe eta zainketarik gabe gehiagotan ez utziz eskatzen die txakur-jabeei.

Era berean, txakur-erasoren bat jasandako herritar guztiei jabeari salaketa egiteko aholkua luzatu nahi die eta Udalari, indarrean dagoen araudia betearaztea.

### TXINTXARRIren hurrengo zenbakia uztailaren 9an argitaratuko dugu

Herriko jaiak direla eta, TXINTXARRI-k zenbaki berezi hau argitaratu du San Pedro jaietako egun bakoitzeko argazki bilduma txikiarekin.

Irudi eta bideo gehiago ikusi nahiez gero, txintxarri.info web orrialdeko San Pedro jaietako berezian aurkitu ditzakezue guztiak.

Era berean, paperezko TXINTXARRI-ren hurrengo zenbakia uztailaren 9an, astelehenean, argitaratuko dugula jakitera ematen dugu. Zenbaki hau arrunta izango da.






# Agenda

## Osteguna 05, Okendo plazan, 22:00etan



### Harremanak zahartzaroan

Udako zine zikloari hasiera emango zaio, "Gianni y sus mujeres" filmarekin. Okendo zinema taldeari esker uztaileko bi egunetan zinea eskainiko da. Eguraldi txarra egingo balu, emanaldia Loidi-Barrengo pilotalekuan izango litzateke. Ostegun honetako filmean, Gianniren istoria ezagutuko dute, Jubilatua dago, baina bere emazte, alaba eta bizilagunaren enkarguak eta etxeko konponketak egin behar dizkiei. Alfonso bere lagunak harreman sexual ugari ditu eta Giannik neska laguna behar duela erabakitzen du. Doan. Gaztelaniaz.

## Lasarte-Oria

### Zinea

*OKENDO PLAZA*
**Osteguna 19, 22:00etan**
Udako Zine zikloaren barruan, 'Extraterrestre" filma eskainiko dute, Okendo zinema taldearen eskutik. Gaztelaniaz.

### Antzerkia

*OKENDO PLAZA*
**Ostirala 13, 12:00etan**
'Mr. Frack" haurrentzako kale antzerkia eskainiko dute.
**Ostirala 20, 22:00etan**
'Carbon Club"kale antzerkia.
**Osteguna 26, 22:00etan**
Urtean zehar herrian gertatu denaren laburpena modu ironiko eta komikoan Santa Ana eguneko parodian.

### Ikastaroa

*ORIAKO PILOTALEKUAN*
**Larunbata 7, 10:00etan**
8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako tailerra egingo dute. Landuko den gaia baratza izango da.

*ZUMABURU ALDEA*
**Larunbata 14, 10:00etan**
8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako tailerra egingo dute. Ehunak era ezberdinetan nola apaindu ikasiko dute.

*SASOETA ALDEA*
**Larunbata 21, 10:00etan**
8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako tailerra egingo dute. Malabareak egiten ikasiko dute.

*OKENDO PLAZA*
**Larunbata 28, 10:00etan**
8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzat tailerra egingo dute. Materialak birziklatuz egin daitezkeen gauzak ikasiko dituzte.

### Jaiak

*ORIAKO AUZOA*
**Astelehena 16**
Karmengo amaren jaiak ospatuko dituzte oriatarrek.

*ERDIALDEA*
**Osteguna 26, eguerdia**
Santa Ana eguneko ospakizunak egingo dira. Brigitarren plazan luntxa eta Santa Ana karkaban dantza egingo da.

### Azoka

*OKENDO PLAZA*
**Igandea 22**
Santa Ana egunaren ospakizunen barruan, artisau azoka egingo da.

### Bestelakoak

*OKENDO PLAZA*
**16:00etatik 20:00etara**
Herriko Ostalarien elkarteak antolatuta, mus festa egingo da. Lasarteko lehen Mus finala jokatu eta mus azkarreko txapelketa izango dira. Sariak, 2 arkume, 4 txuleta, 2 oilasko, 2 langostino kutxa eta cava botila. Izena emateko 10 euro bikoteko.

JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU
ESKERRIK ASKO AURTEN PARTE HARTU DUZUEN GUZTIOI
ETA HURRENGO URTERARTE
Txiki eta helduen txupinazoa ikusgai www.lasarte-oria.org
Lasarte-Oriako Udala
www.lasarte-oria.org




LUIS CAR
autobusak
Oso ondo pasa izana espero dugu!
LUIS CAR
-Espainiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
-Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
-15 plazako mikrobusak.
-55 plazako autokarrak.
-Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.
Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA


Maite BETELU
aterpea
Herriko jai zoriontsuak pasa izana espero dugu !
GESTORIA
SERVICIOS INMOBILIARIOS
Maite BETELU
Gestoria
Aholkularitza
Immobiliaria zerbitzuak
Aseguruak
Etxebizitzen administrazioa
Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117



JAIETAN ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU !

aldaz
hortz klinika · clínica dental

Aldaz Hortz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziazioa 12 hilabete arte

RPS 25/06

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

943 366 377

AENOR
ER
Empresa Registrada
ER-0605/2005

Ola kalea,10
Lasarte-Oria 20160

San Bartolome, 22
Elgoibar 20870

www.dentalaldaz.com